

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Maria Ormaetxea Goitana

*Arrasate,
Gipuzkoa
(1922-2018)*

Aurkibidea



Biografia



Gesalibar auzoko Jauregi baserrian, "Baxabena" izenarekin ezaguna, jaio zen sei anai-arrebatatik zaharrena. Ama umetan Durangotik Baxabenera etorritakoa zen, eta aita berriz Aramaioko Berasategi baserrikoa. Mariak zazpi urte zituela familia Uribarri auzoko Eguzkitza baserrira joan zen, eta hemezortzi zituela, auzo bereko Uribe baserria erosi eta bertara joan ziren bizitzera. Gaur egun Garaia Berrikuntza Gunea dago Uribe baserria zegoen lekuan. Maria zortzi urterekin "Damas de la Asunción" kongregazioko mojen eskolan hasi zen, eta bertan ikasi zuen ia hiru urtez. Neskame jardun zuen Elmako zuzendari Julio Agirrebeitiaren etxean, hilean 30 pezeta irabazten. Geroago josten ikasi zuen, eta ondo ikasi ere. Maria bera joskintza irakaslea bihurtu zen, eta Uribe baserrian hamar urtez neska askori irakatsi zizkien joskintzaren trikimailuak. Gerran Eguzkitza baserria erre egin zieten nazionalak, eta berreraiki egin zuten gerraostean. Mikel Arrieta arrasatearrarekin ezkondu zen eta hiru seme-alaba izan zituzten.

Zintak

ARR-146

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-07-02
- **Iraupena:** 61 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa

ARR-147

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-07-02
- **Iraupena:** 27 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Aita aramaioarra eta ama durangarra

- **Erref:** ARR-146/002
- **Iraupena:** 0:03:55. **Hasi:** 00:02:03. **Bukatu:** 00:05:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak

Laburpena:

<p>Baserrian errenteroak ziren. Ugazaba Santa Agedako ospitaleko Añibarro medikua zen. Aita Aramaioiko Berasategi baserrikoa zen, eta ama Durangoko hargin baten alaba, 14 urterekin Santa Agedara etorritakoa.</p>

2. Baxabenatik Eguskitza baserrira bizitzera

- **Erref:** ARR-146/003
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:05:58. **Bukatu:** 00:09:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Ama Baxabena baserrira ezkondu zen, Zerrajeran lan egiten zuen aramaioar batekin. Aita auzoko ile-apaintzailea ere bazen. Baxabena baserria bota eta okindegia eraiki zuten Santa Agedako mojek. Mariak zazpi urte zituela, etxeko gauzak gurdian hartu eta familia Uribarri auzoko Eguskitza baserrira joan zen bizitzera.

3. Mijek aitaiauna ezin baserritik bidali

- **Erref:** ARR-146/004
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:09:04. **Bukatu:** 00:11:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Maria umea zenean, Santa Agedan bainuetxea zegoen. Mijek, okindegia

eraikitzeko, Mariaren aitajauna ezin izan zuten bere etxetik bidali harik eta hil zen arte.

4. Semea lan istripu batean galdu zuen

- **Erref:** ARR-146/005
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 00:11:57. **Bukatu:** 00:14:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ekonomia eta industria » Boom industrialak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

Zortzi urterekin hasi zen eskolan, kaleko mojetan. Amat, Gautxori, Nieto eta beste lantegi batzuen kokapena azaltzen du. Nieto lantegian Mariaren semea istripuz hil zen.

5. Urte bi eta erdi bakarrik eskolan

- **Erref:** ARR-146/008
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:18:05. **Bukatu:** 00:21:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Uribe baserria nola erosi zuten azaltzen du. Bost anai-arrebatatik zaharrena zen Maria. Gazteena izan zen mutil bakarra, eta ez zuen nahi izan baserrian geratzerik. Burgostik etorritako "Damas de la Asunción"en eskolan ikasi zuen Mariak. Urte bi eta erdi egin zituen eskolan.

6. Uribarrin eraso militarra

- **Erref:** ARR-146/009
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:21:35. **Bukatu:** 00:24:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra hasi zenean, aitzak Zerrajeran egiten zuen lan. Ama eta lau alaba zeuden etxean. Nazionalak Uribarri auzoari egin zioten eraso. Santa Ana baserriko gizona ganbaran gorde, eta aitajauna, andrea eta umeak Eguskitzara etorri ziren babes bila.

7. Nazionalak eta gorriak

- **Erref:** ARR-146/010
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:24:52. **Bukatu:** 00:27:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- [Politika](#) » [Gerra zibila \(1936-1939\)](#) » [Borroka](#)

Laburpena:

Maria beste baserri batera joaten zen esnea eramatera. Gorriekin egin zuen topo eta haiek galdetu zioten zein etxetan prestatzen zuten nazionalek arrantxoa. "¡Viva España!" batzuk entzun, eta gorriok Eguskitzan babestu ziren.

8. Kalera ihesi

- **Erref:** ARR-146/011
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:27:50. **Bukatu:** 00:30:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- [Politika](#) » [Gerra zibila \(1936-1939\)](#) » [Ihes egin beharra](#)

Laburpena:

Goizeko seietan, kalera ihes egin zuten. Olaben etxean jaten ematen zieten, baina ezin zuten bertan lo egin. "Bar Errasti"ko etxea hutsik zegoen, eta bertan egon ziren abenduko hogeita bat egunetan. Handik Arrasate okindegi ondoko etxe zahar batera pasa, eta zazpi hilabetez egon ziren, Eguskitza baserria bista-bistan zutela.

9. Baserria gerran suntsituta

- **Erref:** ARR-146/012
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:30:55. **Bukatu:** 00:32:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- [Politika](#) » [Gerra zibila \(1936-1939\)](#) » [Gerraren eragina](#)
- [Politika](#) » [Gerra zibila \(1936-1939\)](#) » [Ondasunen galera](#)

Laburpena:

Babestuta zeuden lekutik Eguskitza eta etxeko oiloak ere ikusten zituzten, baina ezin zuten bertara joan. Ganaduak harategira saldu zituzten. Aitak lanean jarraitu zuen, baina nazionalek gauez guardiak egitera behartzen zuten. Eguskitza baserria suntsituta geratu zen gerran.

10. Baserria berreraikitzen

- **Erref:** ARR-146/013
- **Iraupena:** 0:03:36. **Hasi:** 00:32:40. **Bukatu:** 00:36:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- [Politika](#) » [Gerraostea eta Francoren diktadura](#) » [Gerratik itzulera](#)

Laburpena:

Baserria berreraikitzeko materiala astoz eramaten zuen Mariak etxera, eta morteroa eskuz egin. Baserriak aseguru bazuen, baina gerrako kalteak ez zituen ordaintzen. Baserria berreraiki eta laster aldatu ziren Uribe baserrira bizitzera. Bertan bizi izan dira Garaia Berrikuntza Guneak terreno guztiak hartu zituen arte.

11. Urte bi neskame

- **Erref:** ARR-146/014
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:36:16. **Bukatu:** 00:38:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

<p>Elma lantegiko Julio Agirrebeitia ugazabaren etxera joan zen neskame. 30 pezeta ordaintzen zizkioten hilean. Luko txaletean umeak zaindu, etxeko lanak egin eta behiak jezten ere egiten zuen lan.</p>

12. Neskametza utzi eta buelta etxera

- **Erref:** ARR-146/015
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:38:40. **Bukatu:** 00:41:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Oso pozik zegoen neskame lanetan, baina familiak hala eskatuta etxera itzuli zen. Etxera bueltatu eta amak josten ikastera bidali zuen. Urtebetean ikasi zuen josten. Eskolan erdaraz ez jakiteagatik izan zituen arazoak gogoratzen ditu.

13. Joskin eskola Uribe baserrian

- **Erref:** ARR-146/017
- **Iraupena:** 0:04:12. **Hasi:** 00:41:55. **Bukatu:** 00:46:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

<p>Goikoetxea abokatuaren emazte Julirekin ikasi zuen josten. Uribe baserrira ere etortzen zen Juli irakastera. Mariak hogeit ureterekin joskin eskola eta tailerra jarri zituen baserrian. Hamar urtez jardun zuen joskin eskolarekin. Santa Agedako moja bati ere irakatsi zion, errezo artean.</p>

Transkripzioa

- Josten ikastera nora fan ziñan?
- Ba, josten ikastera, hoixe, abogauen andrie zan modistie. Estom Ignacio

Goikoetxea zan, hil zan. Ta hointxe hil da semie, ointxe urtebete bat hil da. Haren semie be abogaue ta aitte-semiek bixek gazterik hil zien, bate bestien atzien. Abogaue, Jose Ignacio. Mondrauen bizi diez eta atzenengo zera artien. Bai, eta, holakotxe...

- Eta gero ze, joskin ibili ziñen gero?

- Bai. Gero etxien be, ikesi nauenien, gizona, abogauek modistiorri, niri erakutsi ustenai, ez utsen ixten "siempre hilos!" tartamudo zan apur bat "por el pasillo y la alfombra y quítame eso". Abogaue ta ondo irabazten auen ta bestie modista eta neskak etxien, ba, abogau horrek, enda "fuera, fuera!", bialdu. Neu atzenengoko bialdu nindduen. Erakutsi usten "corte y confección" enda gura euen neuri erakustie "corte y confección", titulue etaratie Bilbon. Hiru hillebete esan ostien. Etxien ez ustien itxi, esan ostien "ba, modista ta zera ta bestie ta". Bueno, abogau horren andriorrek ahalegin guztiek ein usten berak lagundu usten. Gero etorten zan basarrire, hemen Mondrauen bizi, hementxe, Arrasate gaiñien, eta etorten zan Uribera neuri erakustera. Frakak ebai, alkondarak ebai...

- Etxera etorten xatzun, e?

- Etxera, bai, modistioi. Oso, Juli, hil zan kottaue. Enda, emon usten neuri, titulue letxe emon osten neuri. Hartu nittuen hiru-lau neska, soltera, neuken hogei-hogeta bi urte. Esto... hogei urte neuken akabau nauenian jostioi. Hasi nitzen neure kontura lau-bost neska egunero aukitten nittuen basarrixen, ifini gauen kuartotxo bat, hantxe sartzen nitzen neskakin eta fabrikatik, Mondrauetik etorten jaten ikesten asko, basarrire. Edozer lana! Abadie sotanie be eindde nau, nobixiei ezkonketako soñieko zurixe koliaz be bai. Ipiñi bihe zien, ipiñi bihe zien, ipiñi bihe zien danetarakuek. Ointxe nauen moduen, gizona aurrera atarateko zerien.

- Gaiñera, orduen, orduen zu ibili ziñan joskin etxian.

- Etxien joskin erakusten, erakusten bai. Joskin erakusten bost urtien soltera. Gero, xeigarren urtien ezkondu nitzen, beste bost urte... in nittuen soltera bost urte joskin ta beste bost urte ezkondu ume bikin zerien, kalien in nittuen. Beste bost urte, ez! Bost urte soltera ta beste bost urte ezkondu gizon honeaz ezkondu neskakin ta bi umetxokin in nittuen Uriben, basarrixen josten. Santa Agedako zera auen, frailietan auken kosturerixie eurak neskak, auzoko neskak eta juaten zien hara ta preparau nittuen hiru-lau bat preparau nittuen hara josten juateko, bai, zorue, ba, gizakuma harentzako kantzotzilluek edo fraka edo ein bihe zienak edo arreglua apurtu iguel itten zittuen ta, ba, josten neu. Hamar urte neskakin ta oin hemen nabil.

- Hamar urte horreik erakusten Uriben in zittun?

- Bai, Uriben in nittuen erakusten neskakin. Moja bati be bai, erakutsi nutsen, Santa Agedatako mojatatik urten auen ta preparau nauen neuk, Sole, hortxe bixi da, eta preparau nauen ta hari be erakusten be beti be erroxaixue errezau, mojetatik etorritta auen ta, errezau, aingeruei ta kantau ta holaxe. Oindikan saludetan nau, ointxe dau, alargundute dau, eta ezkondu be in zan mojiori, bertako enfermero bateaz ta hemen Mondrauen bizi zan. Enda sarriten ikusten gaz bixok eta "E? Akordetan zara, Sole?" esaten dutset "erroxaixuek errezetan gittunien?" "Bai! Bai!".

14. Santua laztanak zaintzen

- **Erref:** ARR-146/022
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:52:10. **Bukatu:** 00:52:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Nobiotan laztan bat emateko beldurrez.</p>

15. Semea elektrokutatuta

- **Erref:** ARR-146/023
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:52:55. **Bukatu:** 00:55:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

Bere semea lanean elektrokutatuta nola hil zen azaltzen du.

16. Arrasateko bilakaera industrial

- **Erref:** ARR-146/024
- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 00:55:22. **Bukatu:** 00:58:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Arrasateko enpresetako koadrorik onenak, Don Jose Mariak Fagorrera eraman zituela dio Mariak, eta horrek enpresa horien gainbehera ekarri omen zuen. Semea galdu zuenean Don Jose Mariak hartu zuen jarrera azaltzen du.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-02-02

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com